



Señor
Director

A. n

Señor Director del

Nuevo diccionario Praced.

Espanol-Frances del Prestri.

Seo en Resurreccion Manade

Arque. ~~Campo de la Antic. n. 1. p. 3.~~

Lequutio Bilbao

J. S. Oregi

1.2



+

13

Señor Director,

San Sebastián 25 de Agosto.
de 1905.

Muy señor mío, sabedor de la publicación del primer tomo del Nuevo diccionario Basco-Español de Frances del Presbítero Sr. Resurrección María de Arzue, ruego a Ud. me cuente por su suscriptor y si es posible, me remita cuanto antes, todos los publicads. Gracias a Dios y a su autor, queda esperando lo ansiosamente este su S. S. y
afmo Capellan

José Gaspar Oregui

P. D. avisarme su precio y el modo que le parezca mejor de remitirlos
Calle de Loyola San Sebastián p.º 4.º

ESKUTITZ BAT.

Donostiatik, 1891-ko Buruillaren 29 an.

Azkue-ko Resurreccion Maria-Jauna.

Gurgarrizko ¹ Abade Jaun, nere adiskide maitagarriya: ez da gaur, nik onako nere biyotza bete beteko zure *Izkinde* berri miragarri au eta zu biyok maita erazi nai ez zindiozketedan Euskaldun biyotzik. Bai, niretzat guztiz gomutagarrizko ² egun doatsua, orrenbeteraño lagun egin izan dizun Jaungoiko onari milla ta milla esker, zuk ikasle onen añ argigarriro egin dezun Izkinde-liburu eder galant au niri biraldu eta (orduanche bertan edo egun berean izan ere Apaizok genduen Jaungoikoaren Ama Donzellaren Eleiz-errezoa egiten edo errezatzen nengoan biz-aññ ordu onean eta bere egunetako emaitz edo doain zerutikakorenbat biz-ala) nere biyotzeko *hulan-hulan au* zuk niri añ gozoro artu erazi didazan, ill onen ogei ta seiko larunbata, ¡bai, betetan ere niretzat onen atsegin eta oroigarrizko eguna! Ama Euskera zurekin bere jatorrizko añ argi-jariyo bere semerik maiteenarekin biz-ala añ zorionean besarkatu izan dan eran besarkatzeko, zu noiz Salamanka-ko Jainkokinde-eskolan goiyen goiyendurik *Erakusletu* ³ eta Apaizturik ere, zu noiz baño noiz gertatuko zinitzaion begira zai-zai

(1) Gurgarria. venerable.

(2) Gomutagarria. memorable.

(3) Erakusletu. hacerse Doctor.

zegokizula baizik ez dirudi. Gaurtik aurrera alegiya, euskal biyotzen kufungarri onekin! zure izen ta guzti biyotz ta izpañoktatik ere bazarigula bazarigula, illezkortu ere egin bear zatzaigu, bai. *Argiyaren argiya maitetasun edo amorioaren amorioz baizik birutzen edo irukoiztutzen* ezpada, gañ gañeko zure Izkinde miragarri au ere, Añgeruen buru eta eskuetatik sortua bera balitz ere, buru ta biotz onetan baizik burubioztu ezingo litzake bada. Beraz, gaur bere egun santua deguta Migel Arkanjelu santuak gaurtik aurrera batezere, beti bere egopera eta Euskaldun onen biotzetaratuko ere al digu, bai: eta (Euskal-Erriya biztutzen zaigunerako *ill-oe ganean* zuk an bertan Ekaudi' orretako Ekautu² Jaunai añ polliki dirautsezun eran utzi gabe) miragarrieneko gure izkunz Jainkozko onen argijariotegi edertzat bizala gure Euskal-Erriko buru eskubidedun guziyak berezkiro, or emen eta nun-nai biyotz-biyotzetan kufungarritzeraño eta biotzez biotz Euskal-erri guzi guziyan zabaltzerañoko frutu guri ugari ugariyak eman eraziko al dizkizute eta al dizkigu, bai, arren, bai!

Nire ¡ai! Donosti dontsu onetan Euskerak duen baño ikasle geiago ez izatea ezin geiagoraño mingarri bazait ere, zeñi erakutsi daukadan bitartean, gure Irakastegi onetako argijariorik onena paregabeko zure Izkinde bikañ au izango zaigu.

Gerošeago badakuskiozedan oker-unecho batzuen berri ere eman naiko nizuke.

Baita nirekin batera onako nere adiskide eta zure ikaslekide, Jesusen Biyotz donetiko Parruki onetakoše lagunkide On Zipriano Ormazabal eta On Jesús Maria Echeberria Apaiz-ok ere, zayen bizain atsegin-garrizko zure Izkinde onen *ongi-egina* orañ biyotz-biyotzetik ematen dizute.

Atsegingarri izan ere dakiola azkenik, zuk bere glorigarrichotzat egin eta ederki eskañtzen ere diozun Jaungoikoari berari. *Sit gloria Domini in sæculum sæculi: letabitur Dominus in operibus suis.* Psalm. 103.

Jaungoikoaren graziya eta osasuna bere onra eta Euskeraren zorionerako opa opa dizkizun zure agindupeko adiskide Apaiz

JOSÉ GASPAR OREGI-TARRA.

(1) Ekaudia, diputacion.

(2) Ekautua, diputado.